



Ongarri berdeak

Zer dira ongarri berdeak?

Belar-landareak landatzen dira, gero lurzoruan txertatzeko eta, horrela, hobekuntza agronomikoa egiteko (hurrengo laboreari mantenugaiak ematea, lurzoruaren egitura hobetzea...). Bi labore nagusiren arteko txandaketan sartzen dira. Horrela, lurzoru estalia eta babestua mantentzen da; bestela, denbora-tarte horretan landu gabe geldituko litzateke.

Espezie bakar bat edo hainbat espezie osagarriren nahasketa bat erein daiteke. Zer ongarri berde erein erabakitzean, jakin behar da zer helburu dugun eta, jakin ere, laborearen zikloa eta beharrak. Ingurunera egokitutako espezieak izan behar dute, mantenugai askorik eta ur handirik behar ez dutenak.



Onurak

- Lurzoru haizearen eta uraren higaduratik babesten dute, estalita mantenduz.
- Lurzoruaren ezaugarriak hobetzen dituzte: egitura, porotasuna, ura infiltratzeko eta atxikitzeko gaitasuna...
- Lurzoruko mikrobio-populazioa sustraien inguruan aktibatzen da, erizosferan.
- Nahi ez ditugun belarren garapena mugatzen dute.
- Lurzoruko mantenugaien birziklapena eta materia organikoaren edukia areagotzen dira.
- Azkar asimilatzen dira.
- Ongarri-balio handia dute hurrengo laborearentzat.
- Fauna laguntzailea ugaritzen da eta, ondorioz, kontrol biologikoa areagotzen da, elikagai eta aterpea emanez.
- Zenbaitetan, izurriak kontrolatzen laguntzen dute.

Zailtasunak

- Txandaketan sartu behar dira. Kontuan hartu behar da familiak ez errepikatzea, izurrien zikloi mesederik ez egiteko.
- Laborearen zikloa eta beharrak jakin behar dira.
- Lurzoruan ongi txertatuko bada, denbora behar da; beraz, behar bezala planifikatu beharko da.
- Kontuz ibili beharra dago haziak ez botatzeko.

Maneiuia

Lurra prestatzea

Azaleko lana

Ereitea

Udaberria (otsaila, martxo...)

- Hotz handiak jasaten ez dituzten landareak, edo azkar garatzen diren landareak bi laboreren arteko lur librean... (fazelia, ziapea edo udaberriko zalkea...). Udazkeneko ereintzak (Iraila- Azaroa)
- Izotzak jasaten dituzten landareak, ziklo luzekoak (zekalea, oloa, neguko zalkea, ziapea...)

Moztea eta zatikatzea

- Moztu eta zatikatzea, hurrengo laborearen erein edo landatu baino hilabete eta erdi edo bi hilabete lehenago.
- Unerik onena loraketa hastean edo hasi baino lehentxeago da, ahalik eta mantenuz gehienak aprobetxatzeko, baina 30 bat cm-ko altuera aski da.
- Loraldian moztzen bada, kontuz haziekin.

Itxoitea

Utzi 2 edo 3 astez azalean, lur gainean.

Eranstea

- Denbora-tarte hori iraganik, nahastu azaletik ongarrri berdea lurrarekin, 5 cm inguru (gehenez, 20 cm).
- 2 edo 3 aste geroago, lurzorua landu behar da sakonera handiagoan.
- Lurra prestatua dagoenean, laboreak erein edo landatuko ditugu.

Ongarrri berdeen adibide batzuk

Familiak

Ezaugarriak

Adibideak

Lekadunak

- Nitrogenoa ematen dute. Ohiko ereintza udazkenean. Deskonposizio azkarra. Zerealekin eta gurutzadunekin elkartzea. Fauna laguntzailea erakartzen dute.

- Zalkea, bazka-ilarra, bazka-hirusta, bazka-babak...
Dosia gutxi gorabehera: = 120-150 Kg/ha; g/ 10m²

Lastodunak

- Materia organiko handia ematen dute. Sustrai handiak. Elkartu lekadunekin eta/edo gurutzadunekin. Badira negukoak eta udakoak.

- Oloa, zekalea, garagarra, ray grass,
Dosia gutxi gorabehera = 100-150 Kg/ha; g/ 10m²

Gurutzadunak

- Oso azkar hazten dira. Lurzoru pobreetan. Lurzoru trinkotuetan. Lurzoruko elementuak mugiarazten dituzte. Lurzorua azidotzen dute. Deskonposizio azkarra.

- Ziape zuria, horia, bazka-arbia, bazka-errefaua,...
Dosia gutxi gorabehera = 15-20 Kg/ha; g/ 10m²

CPAEN
NNPEK
EKOLOGIKOAK



ongarrri
berdeak